

ARGIA.COM sostengatzeko aukera izango dute erabiltzaileek

Interneten ARGIA aldizkariko eduki denak eta propio ARGIA.COMerako sortuak jartzen ditugu denen eskura, doan. Baina ez da debaldeko lana, astekariko harpidedunei esker mantentzen da. Irailaren 17tik aurrera, Interneteko erabiltzaileek aukera dute ARGIA proiektua diruz sostengatzeko.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

1997AN heldu zion ARGIAk Interneteko apustuari, eta geroztik hona edukiz aberastu da ARGIA.COM webgunea. Astekaria, *Larrun* eta Euskal Kulturaren Urtekaria daude eskura, baina horrez gain, sareko komunikabide multimedia ere bada: etengabeko informazio eguneratua aurkituko duzu bertan, anitz komunikabide berezituetatik ekarritako artikulua, hazten doan blog komunitatea, Beranduegi web telebista saioa, astero dokumental berri bat, film laburrak, hitzaldi osoak bideoan, sare sozialak, kanal espezializatuak, zure iritzia zabaltzeko bideak, diaporamak, Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa eta beste hamaika zerbitzu.

Berrikuntza nagusi bat ere bada: Azarorako webgunea berrituko dugu eta eduki guztiak Creative Commons lizentziapean jarriko ditugu, euskarazko eduki hauek edonork nahieran erabil ditzan.

Gure lan taldeko hamaika kazetarietatik lau ia erabat ari dira ARGIA.COM-en, eta pape-raren eta Interneten arteko lotura da gure helburua, horregatik lantalde osoak idazten du astekarirako zein ARGIA.COM-erako.

CIESen datuen arabera, 57.000 lagunek irakurtzen dute ARGIA astekaria Hego Euskal Herrian eta 5.000k ARGIA.COM eguneroko.

Harpidedunei esker mantentzen da webgunea Euskarazko edukiak Interneten garatzea giltzarri da hizkuntzaren etorkizunerako eta ARGIAk ere bere alea jartzen jarraitu nahi du.

Gero eta publizitate gehiago jartzen dute ARGIA.COM-en, baina oraindik ez bere gustuak



Astekariko harpidedunei esker mantentzen da ARGIA.COM.

errentagarri egiteko adina. Astekariko harpidedunek ahalbideratzen dute ARGIA proiektua Interneten ere garatzea. Irailaren 17tik aurrera, ordea, ARGIA.COMeko erabiltzaile direnek izango dute aukera ARGIA proiektua diruz babesteko.

Diru ekarpena egiteko modua

Nork bere ahaldunaren eta gogoaren arabera aukeratu du zein neurritan eta zein maiztasunez (kolpe bakarrean, hilero, urtean) lagundu estimatzen duen proiektua.

Erabiltzaileak proiektua sostengatzearan garrantziaz jabetzeko, datozen asteetan ARGIA.COMek Interneten orain arte eskaini dituen eduki eta zerbitzuak bistaraziko ditu, eta etorkizunerako prestatzen ari garen proiektuak ere aurreratuko zaizkizue. ■



Azarorako webgunea berrituko dugu eta eduki guztiak Creative Commons lizentziapean jarriko ditugu